BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1415

AGINDUA, 2014ko martxoaren 4koa, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) «Karmelo Ikastola-Solokoetxe» Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen izen espezifikoa aldatzeko baimena emateko dena.

Bilboko «Karmelo Ikastola-Solokoetxe» Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen izen espezifikoa aldatzeko aurkeztutako proposamena aztertu da.

Espediente horren izapideak araudiak ezarritako prozedura jarraituz egin dira; gainera, indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta, bestalde, arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Gai horretan aplikatu beharreko legeria ikusi ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– IES «Karmelo Ikastola-Solokoetxe» BHI ikastetxearen izen espezifikoa aldatzeko baimena ematea: aurrerantzean IES «Solokoetxe» BHI izango du izena. Ikastetxe hori Bizkaian dago, Bilbo udalerriko Solokoetxe kaleko 17an, eta 48012048 kode-zenbakia dauka.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 4a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.